

• ASTERO GAIA •

Eskola Txikiak

Geroz eta herri gehiagotan

Neurria da inporta duena. Eskolak beste era batera emateko aukera ematen duelako, edo testuliburuekin ematea ezinezko egiten duelako. Ikasle denak ezinbesteko egiten dituelako. Gurasoak inplikatu ezean zerbitzurik gabe geratzen direlako... Beste erremediorik ez denean, asmatzen dira formularik handienak, handien ajerik gabe.

ESTITXU EIZAGIRRE

Berrobiko ikasleak (Gipuzkoa), Eskola Txikien Festa aurten bertan egingo dela erakusten duen lekukoarekin. Ekainaren 14an kantatuko dute urteroko ereserkia, zeinak gogorarazten duen herriak eta eskolak elkarren beharra dutela: "Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik".

BERROBIKO ESKOLA



● Eskola Txikiak

ESKOLA jartzeko, Eusko Jaurlaritzak bi baldintza hartzen ditu kontuan: ume kopurua -2 eta 6 urte bitartean 12 ikasle- eta udalaren inplikazioa. Eskola urtetan martxa onean mantentzeko ere, gurasoen eta udalaren elkarlana ezinbestekoa da. Berrobin ospatuko da aurtengo Eskola Txikien eguna. Beti egon da eskola bertan: garai batean gaueskolak ematen ziren udaletxean, eta duela 50 urte jarri zen eskola zaharra. Baina oraingo eskola ederra egiteak izan zituen lanak ez ditu ahaztuko bertako alkate Jon Jauregik: “Orain 18 urte, eskola zaharra txiki gelditzen zela ikusi zuten eta gurasoak borrokan hasi ziren berria lortzeko. Nik alkatetza hartu nuenerako, orain dela hamar urte, borroka hori bazegoen. Nik ere ume txikiak nituen, eta garbi neukan herri txiki bateko zutabeetako bat hori dela, eskola txikirik gabe herriak hiltzera doaz. Kargua hartu aurretik Hezkuntza delegaritzara joan ginen, Mari Karmen Marin zegoen orduan, eta berarekin konpromisoa hartu genuen berria egiteko: Udalak jarri zuen lurra, eta eurek eraikina”. Gurasoek eta Udalak konpromisoa hartuagatik, erakundeekin tematu behar dela aitortu du: “Zortea izan genuen Mari Karmen Marinekin. Politikan antzematen da nork ematen dituen benetako pausoak eta nork ihes egiten duen. Askokosta zen akordioa lortzen. Hamar urte dira eskola berria hitzartu genuela, eta handik lau urtera-edo hasi ziren obrak. Duela bizpahiru urte bukatu zen eskola”. Emaizarekin harro daude: “Berri-berria dago: jangelarekin, kirol azpiegiturekin, haurreskolarekin...”.

Udalaren eta herritarren helburua da, bizitzaren herrian egitea, eta horretarako pieza bat gehiago da eskola. Horregatik, herriaren beraren garapena planteatu behar du Udalak eskolarekin batera, Jauregik kontatu duenez:



ESTITXU EIZAGIRRE

Ixabel Lakuntza
Eskola Txikietako
koordinatzailea eta
Izaskun Karrera
Gipuzkoako Eskola
Txikietako Gurasoen
Kordinadorako
lehendakaria.

“Berrobin 605 biztanle ditugu. Duela hamar urte markatu genuen herrirako zer nahi genuen: gazte jendea bertan gelditzea eta kanpotik ere etortzea. Eta horretarako zimenduak ziren eskola, zerbitzuak... Etxebizitza tasatuak eta babes ofizialekoak bultzatu ditugu, eta lortu dugu 50 bikote geratzea: bertako jendea asko, eta kanpotik ere etorri zaizkigu. Apustua egin behar da, eta garbi genuen eskola txikia bizirik behar zela: bikoteek erraztasunak bilatzen dituzte biek lan egiten dutelako, eta behar duzu jangela, behar duzu haurtzaindegia, eta hori ez baduzu herrian...”. Hurrengo 10-15 urtera begira daude orain: “Arau subsidiarioak ere berrikusi ditugu eta 150 etxebizitza berri egiteko aukera ikusten dugu. Beste 100 familia gehiago izango ginateke, eta Berrobiko eskolan 100dik gora ume”.

Udalak eskolaren mantenua bere gain hartu behar du, baina Berrobiko alkateak garbi du: “Herri txiki bateko Udalak apustu hori egin behar du eta gainean egon, falta diren hutsu-


EAEko bilakaera

- 1960-1970eko hamarkadetan herri txikiak husten hasi ziren, eta hauekin batera eskola txikiak.
- 1970eko Espainiako Hezkuntzaren Lege Nagusiak eskola txiki asko desagerrarazi zituen: zortzi gela baino gutxiagokoak. Eutsi zioten eskolak are abandonatuago geratu ziren.
- 1980ko hamarkada erdialdetik hasi ziren irakasleak elkartzen eta pedagogia propioak lantzen. Berritzegunean koordinatzailea jarri zuten.
- 1990ean LOGSE legeak “landa-eremuko eskolak” hartu zituen kontuan, baina Oinarrizko Hezkuntza Orokorra 14 urtetik 16ra luzatu zuen. Ondorioz, eskola txikietan 14 urtera arte beharrean 12 urtera arte geratzen ziren ikasleak. Eskola txikien

izaera kolokan jarri zen, eta mugimendua bizkortu zuen.

- 1993-12-20an Zizurkilen, Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkartearen Koordinadora sortu zuten, 11 herritako guraso elkarteek. Egun 26 eskola txikitako guraso elkarteak biltzen ditu.
- 2003-2-25ean sortu zen Eusko Jaurlaritzako Eskola Txikien Batzordea, Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburu zela. Egun Gipuzkoa eta Bizkaiko guraso eta irakasleek, koordinatzaileak eta Hezkuntza Ordezkaritzak osatzen dute.
- Eskola mapa berriak eskola txikiak kontuan hartu ditu; lehen aldiz izendatu dituen legea da.

Iturria: Lorea Agirre, Jakingarriak 64.



Datu orokorrak:

Gipuzkoan: 26 eskola. 999 ikasle.
Bizkaian: 28 eskola. 1.764 ikasle.
Nafarroan: 81 eskola. 3.039 ikasle (2007/2008 ikasturteko datua).
Lapurdin: 3 eskola katoliko.
Behe Nafarroan: 2 eskola katoliko.
Zuberoan: Eskola katoliko 1.
Baliabideak: Nafarroako Gobernuak 5 koordinatzaile ditu lanean. Eusko Jaurlaritzak Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola txikiak koordinatzeko langile 1 du.

- Lehen Hezkuntza
- 8 urterta arte
- DBH

BIZKAIA			
Amoroto	30	Ispaster	30
Areatza	114	La Arboleda	
Arrankudiaga	79	Lamiako	
Artea	47	Laukariz	
Artzentales	28	Laukiz	48
Atxondo	74	Lemoiz	55
Aulesti	65	Mallabia	76
Bakio	103	Munitibar	27
Berriatua	75	Muxika	62
Busturia	101	Otxandio	115
Etxebarria	60	Turtzioz	31
Gatika	61	Urduliz	122
Arteaga	43	Zeanuri	111
Gordexola	116	Zeberio	91

LAPURDI
Lekuine
Bokale

NAFARROA BEHEREA
Isturitze
Aldude
Mehaskane

ZUBEROA
Altzai

GIPUZKOA	
Abaltzisketa	37
Aduna	42
Aginaga	11
Aia (Andatza)	21
Aizarna	17
Aizarnazabal	56
Albiztur	21
Alkiza	29
Altzo	55
Angioza	11
Arroa	29
Berrobi	47
Bidegoian	49
Elgeta	80
Ereñozu	29
Errezil	56
Gabiria	50
Igeldo	53
Ikaztegieta	63
Itsasondo	37
Lizartza	65
Oikia	28
Olaberria	25
Zerain	12
Zizurkil	47
Zubieta	29

NAFARROA			
Arraioz	Jauntsarats	Lakuntza	Murillo el Fruto
Amaiur	Arantza	Olazti	Arrada
Ziga	Igantzi	Urdiain	Santakara
Ornoz	Lesaka	Ledea	Beire
Azpilkueta	Etxalar	Zare	Pitillas
Arizkun	Sunbilla	Esa	Uxue
Erratzu	Erronkari	Oibar	Abartzuza
Irurita	Izaba	Kaseda	Allo
Gartzain	Otsagi	Irunberri	Antzin
Almandoz	Ezkarotze	Elo	Arruiz
Zugarramurdi	Garralda	Zirauki	Lezaun
Labaien	Auritz	Mañeru	Murieta
Saldias	Aurizberri	Añorbe	Oteiza
Eratsun	Erro	Obanos	Carcar
Legasa	Luzaide	Barasoain	Deikaztelu
Narbarthe	Urrotze	Berbintzana	Sartaguda
Ituren	Zubiri	Mendigorria	Sesma
Areso	Arbizu	Miranda Arga	Villatuerta
Betelu	Etxarri Aranzat	Figarol	Zudaire
Goizueta	Iturmendi	Melida	Fontellas

Oharrak:

- EAEko Hezkuntza Sailarentzat, "eskola txikiak" dira gehien jota 6 talde dituztenak. Bizkaiko eskola batzuek talde gehiago dituzte eta beraz, ez dira ofizialki txikiak, baina euren burua eskola txikitzat daukate, eta adin desberdinetako haurrak taldean nahasten dituzte.
- Araban badira eskola txikien parametroetan dabilzan eskolak, baina ez dute euren burua horrela definitzen.
- Nafarroan ziklo bakoitzeko gela bakarra denean deitzen zaio "landa-eremuko eskola", baina gela kopuru handiagoa duten batzuek landa-eremuko bezala lan egiten dute.
- Iparraldeko "ecole rural"en artean, kristau eskolen datuak dira mapakoak, eskola publikoetako datuak falta zaizkigu.

Iturriak:
Xabier Ballarena, Jakingarriak aldizkariaren 64. zenbakia.
Gipuzkoako Eskola Txikiak
Bizkaiko Eskola Txikiak
Kristau Eskola

Elena Laiz: "Lortzen duten maila akademikoa beste eskoletakoen berbera da, baina hobeto ikasia"

1958an Bilbon jaioa, irakasle izateko. 31 urte daramatza irakaskuntzan. Lehen urteak eskola oso handietan egin zituen, eta ondoren 24 urtez aritu da Zizurkilgo (Gipuzkoa) eskola txikian. Duela 18 urte egin zuen topo konstruktibismoarekin, eta harrez gero Myriam Nemirovsky-ren beraren eskutik "formazio oso sakona" jaso zuen. Orain hiru urte gaixotasunak haurren artetik atera zuen, baina Eskola Txikien pedagogia lantzen jarraitzen du, irakasleen formazioa bideratzen.

Adin desberdinekoak gelan nahasteak zer ezaugarri dakartza irakasterakoan?

Dudarik gabe adin aniztasuna oso ona da. Jende denak erraz ikusten du txikiak gehiago ikasten dutela handiekin batera, baina handiek ere asko ikasten dute txikiarekin. Handiek askotan azaldu behar izaten diete txikiei zer egin duten, eta zerbaiz azaldu behar duenak beste pauso bat ematen du, beti gehiago ikasten du. Batzuetan txikiarekin gauza bat lantzen ari zara, eta gure ustez handiek oso menperatua dute hori jada, baina agian ez, eta oso ongi etortzen zaie berriro entzutea azalpen hori, edo adibideak jartzea... "Kontxo, orain hobeto ulertu dut" esaten dute. Beste estrategia didaktiko bat da "tutorizatu" deitzen duguna: txiki bat handi batekin jarri, binaka, eta zaharra da tutorea eta txikia tutorandoa. Jarduera zehatzak egiten ditugu horrela, adibidez: handiak irakurri behar dio txikiari, txikiak ez badaki irakurtzen. Horrela, handiak prestatu egin behar du testu hori, txikiak ulertu dezan ondo. Hor biak ari dira lantzen irakurketa. Edo txikiak topatzen ditu ulertzen ez dituen hitzak eta handiarekin elkartzean galdetzen dizkio, edo txikiak ekoizten du testua eta handiak transkripzioa egiten dio modu konbentzionalean... Ikasketetan zailtasunak dituzten ikasle handiak oso ondo sentitzen dira egoera horretan: txikiarentzat handi hori delako ikaragarria eta miretsi egiten du.

Adinen arteko errespetua asko lantzen da, batzutan behar hutsagatik. Sarri handiek txikien beharra dute, adibidez jolasteko. Denek dute denen beharra. Txikiak ikusten dute nora jo behar duten, oso motibatuta daude ikusten dutelako zer egiteko gai diren handiak. Baina handiek errespetua zor diete txikiei, eta ikusten dute eurak ere hortik pasa zirela orain dela gutxi.

Nola egiten du lan irakasleak?

Gai edo proiektu bera eramaten dugu aurrera denok. Ume denek bere ardurak eta konpromisoak betetzen dituzte, baina bakoitzaren emai-

neak betetzeko". Askok sumatzen baita eskola herrian: "Udaberritik aurrera ume jendek guztia jolasean ikusten duzu plazan eta oso pozgarria da. Udaletxera ere aldi behin etortzen zaizkigu galderak egiten, diapositibak eta hitzaldiak eskaintzen dituzte... Eta batik bat euren arteko laguntasuna bultzatzen da. 12 urtetik aurrera Tolosara jaisten direnerako, euren arteko laguntasuna indartuta dute. Txiki-txikitatik behera eramaten badituzu, hilabete mordo bat herritik kanpo egiten dituzte, eta harreman hori galdu egiten da pixka bat. Guk harreman hori eta herri giroa indartu nahi dugu".

Indarrean den mugimendua

Eskola jartzea gero eta herri gehiagotan planteatzen dela azaldu du Izaskun Karre- rak, Gipuzkoako Eskola Txikietakoko Gurasoen Koordinadorako lehendakariak: "Peda-

tza edo erantzuna desberdina da, bakoitzaren garapenaren arabera. Hasieran irakasleei kosta egiten zaigu, hala erakutsi digutelako, testu liburuak eta material didaktikoak mailaka daudelako antolatuta. Material horiekin lan egitea zaila da adin desberdineko ikasleekin. Baina beste era batera lan eginez gero, oso aberatsa da. Irakasleei aldiz, ez zaie batere kostatzen: herrian, familian... adin desberdineko jendea ibiltzen gara elkarrekin, leku guztietan. Eskolan bakarrik bereizten dira pertsonak adinaren arabera. Oso antinaturala da berez, eskola adinka antolatzea.

Maila akademiko ona lortzen dute?

Lortzen duten maila akademikoa beste eskoletakoen berbera da, baina niretzat hobeto ikasia. Ikastearekin egiten den binkulua, atxekimendua, oso desberdina baita. Irakurtzen ikasi ondoren, zer diozu? Irakurketari gorrotoa, irakurzalea zara, menperatzen duzu irakurketa egoera desberdinetan? Atxekimendua gainerako hori dena da. Eskola txikiak errazten du atxekimendua afektiboa: gutxi dira, oso ondo eza- gutzen ditugu, denbora hartu dezakegu patxada gehiagorekin lantze- ko gauzak, lasaitasun gehiago lortu genezake.

Sozializazioa da beste kezka bat, harreman sarea txikiarekin ote den.

Nik lehen urteak eskola handietan egin nituen, eta askotan ikusten zenituen umeak bakar-bakarrik patioan edo binaka edo hirunaka, zortzirehun umeren artean. Ez pentsa zortzirehunak elkarrekin ibiltzen direnik.

11-12 urterekin iruditzen zait behar dutela esparru handiago bat, baina gauza guztietan: lagunarte handiagoa (nahiz eta lagun minak gutxi izango diren), ikusi behar dituzte saltsa gehiago, arazo gehiago... DBH egitera eskola handira doazenean beste mundu bat deskribitzen dute, eta horrek ere bere xarma badu. Baina 11-12 urtera arte oso ondo daude eskola txikietan, oso goxo. Jasotzen duten lasaitasuna, arreta indibiduala, maitasuna... oso ona da. Bere inguruak hasieran babesat ematen die, eta txikitik hori behar da, hasierako babesak eta zibiltasunak ume seguruagoak egiten ditu. Handiagoak direnean, babes hori hartu dute, nahiko prestatuta daude kanpora ateratzeko.

Munduan zer erreferentzia daude?

gogikoki demostratuta dagoelako eskola txiki- en eraginkortasuna. Guraso zarenentzat, edo uzten duzu dena irakasleen eskuetan edo hasten zara aztertzen zer nahi duzun eta zer ez. Edo bestela herriarekin ahazten zara eta bidaltzen duzu haurra mundu osoak bidaltzen duen tokira. Hausnarketa hori guztia gaur egun guraso gehiagok egiten dute". Herri txikietak kanpotik etorritako jendeak bertan bizimodua egitea klabea dela dio: "Herriaren aldeko apustua garbi daukate bertakoek, kanpotik bizitzera joan garenok garbi edukitzea, hori da garrantzitsua. Orain herrietara bizitzera doana ez doa merkeago delako etxea, beste mila gauzen bila doa. Nekazal ingurua, eta horrekin lotutako guztia, tartean eskola. Bestela ez dago bizirik".

Eskola txikietak mugimendua badago bai gurasoen, irakasleen eta ikasleen artean. Elkarlanean ari dira aurrera egiten, Ixabel

Espainiako Estatuan "escuela rural" deitutako asko daude, Katalunian mugimendu handia dago, Aragoian eta Galizian ere bai... Finlandiako hezkuntzaren emaitza onak atera zirenean, deskubritu genuen eskola gehienetan adin desberdineko haurrak nahasten dituztela gelan, eskola txikiak direla, herritik gertu daudenak. Ez dira makroeskolak.

Pedagogikoki oso garatuta zaudete, baina eskola publikoa denez, irakasleen joan-etorria ikaragarria da.

Hori da dugun arazo handietako bat. Bertan gelditzen diren irakasleentzat ere gogorra da urtero azaldu beharra nola lan egiten dugun, zergatik, zer onura dituen... Batzutan jendea etortzen da ezagutu gabe zer den eskola txiki bat, eta jartzen direnerako... laztik, irailean datozen irakasle berriekin saioak egiten ditugu, bereziak euren-tzat. Oso tinko jartzen ditugu gure oinarriak, eta zama hori arintzen zaie eskolako irakasle finkoei. Berehala eskolako dinamikan sartzen dira, eta ikasturtean zehar fomaziorako mintegi eta bilerak egiten ditugu irakasle denekin, bai finko eta bai berriekin. Borondatezkoa da mintegi hauetan parte hartzea, baina ia denek hartzen dute parte: umeekin lan nola egin bideratzen dugu, unitate didaktikoak prestatzen ditugu, teoriar sakondu, esperientzia trukatzeko... Eta garrantzitsuena dena, ikasleekin praktikan jartzen dute landutakoa. Ikasleengana iristen ez bada lan hori, nire lana alferrikakoa litzateke.



ESTITXU EIZAGIRRE

Txikiaren logika: ez gara berdinarik

Gurasoek oso harreman estua dute irakasleekin, umeak hezterakoan. Eta herrian falta diren zerbitzuak lortzeko egiten dute lan. Izaskun Karrera dioenez, "herri txikietan base-ritar gutxi geratzen da, zoritxarrez. Herri txikiak ez dira lehen zirena, eta herri handien beharrak ditugu. Igeldon konturatu ginen goizeko zaintza jartzen ez bagenuen haurrak Donostiara joango zirela. Ludotekarekin berdin, beharraren arabera joaten zara jartzen".

Beharrak herri eta eskola handienak dituzte, baina txikiak badituzte euren ezaugarriak, Ixabel Lakuntzak bereizi duenez:

"Gu behin ere ez gara iristen kopuruetara, ezertarako". Horregatik, beste logika batekin bilatu behar dituzte irtenbideak, Karrera esperientziak dakienek: "Ludoteka martxan edukitzeko, adibidez, egunero guraso bat egoten da begirale. Ez gara inoiz berdinarik izango, desberdin antolatzen garelako. Zerbait behar dela? Bada gure artean antolatzen gara".

Handiengan pentsatuta egiten da legea

Eusko Jaurlaritzako Eskola Txikien Batzordeko kide dira Karrera eta Lakuntza, eta bertan erakundeei euren beharrak ikusarazten saiatzen dira. Lakuntzak sistemaren kontraesanak agerian jartzen ditu: "Onerako eta txarrerako, dena egiten da eskola handiengan pentsatuta. Eskola txikietara agian bidali dituzte 18 ordenagailu, dauden ikasleak baino gehiago kasi". Batzordearen lorpenak ere kontuan ditu: "Eskola mapan eskola txiki izena agertzea izan da lortutako gauza bat. Edo irakasleen egonkortasuna mantentzeko, eskola txikiak aukera dugu ordezko gisa dauden irakasleak bertan gelditzeko. Horrela ziurtatu daiteke irakasleen %50 ez dela aldatuko". Baina denbora osoan arreta deitzen jardun behar dutela salatu du: "Kontuan hartu behar dute eskola txikiak berezitasun batzuk dituztela, eta egiten duten gauza guztietan egon behar luke aparteko zehaztapen batek, eskola txikietan zer edo nola egin diena, DBHrako bereizten duten bezala". Eskola txikiak behar bereziak baitituzte, batez ere formazioak: "Irakasle pila bat pasatzen da eskola txikietatik, eta irakasle horiek denak bi-hiru adin nahastuta nola lan egin ikasi behar dute eta formazio bat aldarrikatzen dugu. Badaukagu (Elena Laizek ematen duena), baina erabat koiunturala da, eta nahi dugu formazioaren beharra onartzea eta egonkortzea. Unibertsitatean ere azaldu dezatela nola lan egin behar den horrelako eskoletan. Eskola asko gara". Karrera boro-bil azaldu du administrazioaren aurrean duten sentipena: "Nik irudikatzen dut familia handi bat, eta txikitxoak hatza jasota, 'hemen nago! hemen nago!' esanaz. Hori gara gu". ■

www.argaia.com/multimedia
helbidean, elkarriketaren bideoa.

Lakuntzak, Eskola Txikien koordinatzaileak kontatu duenez: "1988-1989 ikasturtean eskola txikiak elkartzen hasi ziren. Gurasoak alde batetik duintasuna aldarrikatzeko eta irakasleak, euren bakardadetik ateratzeko. Geroztik biltzeko eta elkarrekin lan egiteko ohitura mantendu dugu". Irakasleentzat formazio mintegiak –ikus Elena Laizen elkarrizketa– eta zuzendarien mintegiak egiten dituzte, eskolako arazoei denon artean irtenbideak bilatzeko. Eskola txikietakoa ikasleek beste herrietakoekin kirol topaketak, egonaldiak, bloga eta abar egiten dituzte, elkar ezagutzeko. Eta irakasle eta gurasoentzat topaketak egiten dituzte urtero, adituen hitzaldiak jasotzeko eta esperientziak trukatzeko. Eskolek elkarlanean hainbat lan egin dituzte, adibidez, hezkuntza proiektua. Proiektua elkarren artean lantzen duten arren, ondoren eskola bakoitzak bere egoerara egokitzen du.